



Aurkezpena

ALDARTEkideok sexu eta genero alorretan gizon eta emakumeok bizi dugun aniztasuna lantzen dugun neurrian, behin eta berriro egiten dugu topo errealitate gordinarekin. Izan ere, oraindik larria da mundu zabalean hainbatek eta hainbatek sufritzen duten jazarpena eta bazterkeria, zergatik-eta bizi duten sexualitatea edo generoagatik “ez normaltzat” hartuak direlako. Guztiok bizi dugu sexualitatea eta guztiok daukagu generoa, baina bizi ditugun horiek bat ez datozenean “normaltzat” hartuak diren ereduarekin, sarriegitan tradizioa, kultura edo erlijioa aitzakiatzat hartuta, zilegi bezala hartzen da jazarpena eta, larriagoa dena, baita pertsona horien kontrako abusuak eta indarkeria ere.

dena, baita pertsona horien kontrako abusuak eta indarkeria ere.

Sexu eta genero arauetatik kanpo bizi diren pertsonak sufritzen dituzten indarkeriak arazo larri-larriak dira, nahiz eta kasu gehienak ixilean eta ezkutuan geratu, gehienetan ez direlako ezagutzen eta, ondorioz, ez direlako aintzat hartzen. **Aipatu indarkeriak muga oro gainditzen ditu, bai eta klaseak, etniak eta erlijioak ere, eta bere oinarrian LGBTI pertsonen kontrako (Lesbianak, Gay gizonak, Transexualak, Bisexualak eta Intersexualak) gorrotoa dago, haietako bakoitzak duen sexu aukera edota genero nortasunagatik.**

Indarkeria horiek guztiak **GORROTO DELITU**tzat hartzen dira, gero eta gehiago. Zeri deitzen diogu gorroto delitua? Honakoari, noski: *“Pertsonaren berezko duintasunaren eta giza eskubideak unibertsalak direnaren delituzko ukazioari deitzen diogu gorroto delitua. Ukazioa gure aniztasun sozial, politiko edo kulturalaren arbuioan eta gizatasuna adierazteko modu ezberdinen ukazioan oinarritzen da, gizabanakoei edo gizataldeei eraso eginez”*¹. Arau urratze horiek bere baitan dakarte, delitu diren eina, gizatasuna askotarikoa dela aitortzen duen printzioaren hondamena, bai eta pertsona ezberdinen arteko onartze eta begirunearena ere. Ezin dugu ahaztu horiek direla, azken batean, UNESCO, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen² Aldarrian babesten diren printzipioak. Gorroto delituak biktimen askatasuna eta berdintasun eskubidea zapuzten ditu, dudarik gabe.

Horrexegatik, eta Sexu Orientazio edota Genero Nortasunaren kontrako gorroto delituen aurrean giza eskubideen aldeko herritar kritiko eta ahaldunduak sortze aldera,

¹<http://www.actualidadhumanitaria.com/opinion/734-que-son-los-delitos-de-odio>

²http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=13161&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html



ALDARTEko kideok honako onlineko ikastaroa antolatu dugu: **“IKUSPEGI OSO BATETIK SEXU ORIENTAZIO EDOTA GENERO NORTASUNAREN KONTRAKO GORROTO DELITUEI AURRE EGIN AHAL IZATEKO TESTUINGURU, AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK”**. Ikastaroaren xedeetako bat izango da, hain zuzen, sexu eta genero aniztasunaren aldarrien defentsarako sare bat sustatzea, gorroto delituak atzeman eta aztertzeko balio izango duten baliabide teoriko eta praktikoak eskainiaz bertan parte hartuko duten guztiei.

ONLINEKO ikastaroa:

Helburua

Euskal Herriko eta Latinamerikako herritarren arteko gogoeta, komunikazioa eta esperientzien hartu-emana sustatzea. Zelan lortu nahi dugun hori? Ikuspegi oso batetik sexu orientazio edota genero nortasunaren kontrako gorroto delituei aurre egin ahal izateko baliogarriak izango diren talde baliabideak eskainiaz, hain zuzen.

Proposamena

Ikastaroa onlinekoa izango da erabat, moodle e-learning plataformaren bitartez. Eztabaida, eskuhartze eraginkorra eta sormena sustatzeko moduko ekintzak proposatuko ditugu. Modu horretara, talde ikasketarako metodologiari jarraitzearekin batera, lortutako ikaspenak baliagarriak izan beharko dute ondoren modu praktikoa, ekintza zehatzen bitartez sexu orientazio edota genero nortasunaren kontrako gorroto delituak salatu eta gainditzeko. Noski, ikastaroan parte hartuko dunenen herrialdeetako errealitateei egokituta beharko dute izan aipatu ekintzak.

Lau modulu izango ditu ikastaroak eta, guztira, lau aste iraungo du. Honako hauek izango dira irakasleak: Elena Olaortua, ALDARTEko abokatua, *Iñigo Bilbao Sagastiberri*, Boti, Mexikon bizi den kazetaria eta Sexu eta Genero aniztasunean aditua dena, eta María Teresa Blandón, Nikaraguako *Corriente feminista* taldeko kidea.

Argibide gehiago lortzeko, idatzi honako helbidera: kooperaldarte@aldarte.org



Zergatik eman izena (hainbat ideia)

Egia esan, orinartekoak nahikoak badirela uste dugu zuon jakin-mina eta arreta pizteko. Hala ere, oraindik izena eman edo ez zalantzan bazabiltza, hona hemen ikastaroan parte hartzeko argudio gehiago:

- Sexu orientazio edota genero nortasunaren kontrako gorroto deituen gaineko informazioa eta formakuntza eskainiko dizu, ondoren zuren lanbidean edo borroka eremutan oso-oso baliagarriak izango zaizkizunak.
- Zure eremutik haratago, mundu mailako talde eztabaidan parte hartzeko aukera eskainiko dizu. Aukera izango duzu, gainera, Euskal Herriko zein Latinamerikako beste herrialdeetako lagunak egiteko, zeinekin ikastaroa bitartean eta baita horren ondoren ere, aukera izango duzun gogoetak egin eta aipatu delituen kontrako edota sexu eta genero aniztasunaren inguruko ekintza bateratuak lantzeko.
- Mundu justu eta bidezkoago baten alde gaudenon artean sarea egiteko aukera eskainiko digu, sexualitatea libreki bizitzen eta generoa askatasun osoz lantzen lagunduko diguna guztioi.

¡¡Zain gauzkazu!!